


# Intxaurrondo kantuz kantu

Intxaurrondo Zaharreko Bizilagun Elkartek (IZBE) "Lagunekin kantari" egitaraua antolatu du maiatzan, Donostia Kulturaren eta IRUTXULO-ren laguntzarekin. Eki-men berezia da hauxe. Izan ere, hainbat kantari gonbidatu dituzte eta entzuleek haiekin abesteko aukera izango dute. Lehen ekitaldia maiatzaren 3an izango da Larrotxenen.

Joxerra Beloki IZBE-ko kideak azaldu digunez, elkartek kantu ikastaroa antolatzen duen bigarren urtea da honakoa. Iazko ikastaroa bukatzeko, emanaldi berezia egin zuten, irakasleak Jon Bergaretxe eta Iñaki Maritxalar kantariak zirela aprobetxatuz. Ekitaldi hura irekia izan zen eta beraz, ikastaroetako parte hartzaileez gain, beste hainbat herritar ere hurbildu ziren Larrotxene kultur etxera. Lehenengo zatian kantariak beraien aukeratutako abestiak eskaini zituzten eta bigarrenean, berriz, jendearekin bat, kantu herrikoiak abestu zituzten. Ideiak arrakasta izan zuen eta jendea gustura aritu zen, bai entzuten, baita kantatzen ere.

Joan den urteko ekitaldiaren haritik, IZBE-ko lagunak egitarau oso bat prestatu dute aurten, "Lagunekin kantari" izenburupean. Lehen esan bezala, entzuleek kantatzeko aukera izango dute. Guztira, hiru emanaldi izango dira, maiatzaren 3an hasita, eta baita kantu kalejira eta afaria ere, azken egunean, maiatzak 24. Joxerra Belokik dioenez, bestalde, maiatzaren 23ko emanaldia berezia izango da:

**Entzuleek kantariekin abesteko aukera izango dute**



"Etxekoekin kantari" jarri diote izenburu eta bertan, kantu ikastaroko irakasleek parte hartuko dute.

## Larrotxenen

IZBE-k antolatutako ekitaldi guztiak, azken eguneko kantu kalejira eta afaria izan ezik, Larrotxene kultur etxean egingo dira, 20.00etatik aurrera. Entzule guztiei kantu liburuxka bana emango zaie, bigarren zatian kantariekin batera abestu dezaten.

Belokiren esanetan, "Lagunekin kantari" ekimenak bi helburu ditu: "IZBE auzo elkarteak denez, helburu nagusia auzoa dinamizatzea eta auzo bizi baten bila joatea da. Bigarren helburua, Euskal Herrian gaudenez, euskal ohiturak eta gure kultur ondarea berreskuratzea da". Horra hor, beraz, Intxaurrondoko eta Donostiako kantuzaleen ezinbesteko hitzordua datoren hilabetean.



## Egitaraua

Maiatzak 3	Amaia Zubiria
Maiatzak 17	Jean Mixel Bedexagar
Maiatzak 23	Jon Bergaretxe, Itziar Zamora eta Ainhoa Ansa ("Etxekoekin kantari")
Maiatzak 24	Kantu jira (20.00) eta kantu afaria (21.30)